

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OYÓN-OIONGO UDALA

Behin betiko onespena ematea Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8., 84.4 eta 108. artikuluetan aipatzen diren herritarrek parte hartzeko programak egitea eta izapidetzea arautzen duen ordenantzari

Aipatutako ordenantza onesteko espedientea jendaurrean egon da 30 egunez, 03592 zenbakiko iragarkia ALHAOn argitaratu (2024ko azaroaren 20an, 132. zk.) ondorengo egun baliodunetik aurrera.

Espedientea jendaurrean egon den bitartean, ez da alegaziorik aurkeztu, ez eta erreklamaziorik ere. Beraz, behin betiko onetsita geratzen da Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8., 84.4 eta 108. artikuluetan aipatzen diren herritarrek parte hartzeko programak egitea eta izapidetzea arautzen duen ordenantza.

Ordenantza hau osorik argitaratu eta indarrean sartuko da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritako epea igaro ondoren, eta indarrean jarraituko du berariaz indargabetzen edo aldatzen ez den bitartean.

Administrazio bidea agortzen duen behin betiko onespeneren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salan, bi hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Hala ere, egokitzen jotzen den beste edozein errekurtsio ere aurkeztu ahal izango da. Bo250109A.

Oyón-Oion, 2025eko urtarrilaren 9a

Alkatea

JOSÉ MANUEL VILLANUEVA GUTIÉRREZ

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8., 84.4 eta 108. artikuluetan aipatzen diren herritarrek parte hartzeko programak egitea eta izapidetzea arautzen duen udal ordenantzaren testu osoa.

Zioen azalpena

Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen (aurrerantzean 2/2006 Legea) zioen azalpenean adierazten da herritarrek parte hartzeko duten eskubidearen bermea, herritarrek parte hartzeko programen figuraren bidez –nahitaezkoak izango dira egitura antolamenduko planetan–. Gainera, horri gehitzen dio hirigintzaren inguruko informazioa jasotzeko duten eskubidearen bermea, udaleko hirigintza plangintza lurralde eta sektore antolamenduko tresnekin zuzena eta koherentea dela ziurtatzearen bidez.

Aipatutako legearen herritarrek parte hartzeko printzipioa izenburuko 8. artikuluan aldarrikatzen denez, hirigintzaren antolamendua egin, izapidetu, onetsi eta egikaritzeakoan, ahal den laguntza eta erraztasun guztiak eskainiko dira pertsona fisikoek eta juridikoek parte har dezaten parte hartzeko era guztien bidez; betiere, legean berariaz aurreikusita dauden pertsonen

parte-hartzea bermatu beharko da Eta jarraitzeko, esaten du parte-hartzearen printzipio horrek eskubide hauek dakartzala berarekin:

a) Plangintza izapidetzeko, egikaritzeko eta hirigintza diziplinako prozeduretan interesdun gisa agertzeko eskubidea, legitimazio berezirik egiaztatu beharrik gabe.

b) Herri administrazio eskudunen artxiboetan dauden agiriak ikusi eta haien kopia eskuratu ahal izateko eskubidea, kasuan kasuko herri administrazioak erabakitako eran eta legeetan oro har ezarritako mugekin ez besterekin.

c) Legitimazio berezirik behar izan gabe, bidezko diren akzioak erabili ahal izatea, hala administrazio bidean nola auzi bidean, herri administrazioei nahiz subjektu pribatuei hirigintzako legeria eta plangintza bete dezaten exijitzeko.

2/2006 Legearen 108. artikulua ezartzen duenez, plangintza orokorreko tresna bat edo hiri berroneratzeko plan berezi bat formulatzen, berrikusten edo aldatzen hasteak auzo finkatuei eragiten badie eta biztanleriarengan ondorioak izaten baditu, parte hartzeko programa bat izan behar da, eta, bertan, herritarrek parte hartzeko duten eskubidea ahalbidetzeko behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira.

Funtsean, herritarrek parte hartzeko programa (HPP) da herritarrei plangintza egiteko prozesuan parte hartzeko eskubidea bermatzeko tresna. Jendaurreko bilkuren, zabalkunderako materialaren eta, beharrezkoa balitz, herri kontsultaren bitartez antolatzen da.

Legearen azterketak adierazten digu HPP izapide egintza garrantzitsua dela plangintza orokorreko tresnak eta hiri berroneratzeko plan bereziak onesteko edo aldatzeko. Parte hartzeko programaren izapideetako ez-betetzeek deuseztasun akatsa eragin dezakete prozeduran.

Ez dugu ahaztu behar prozedurazko mugari bat dela, izapidetzearen hasieran kokatua, eta horrek prozedura hasierara eramatearen zoritzarrezko ondorioa ekar dezakeela.

HPPak izapide egintza garrantzitsuak dira hirigintza antolamenduko tresnak onesteko edo aldatzeko. Arrazoi horiek direla-eta, beharrezkotzat jotzen da herritarrek parte hartzeko programak egitea eta izapidetzea araz arautzea. Eta jarraibide horiei erregelamendu maila eman nahi zaie, jarraibide horiek luzerako izan daitezen aplikagarri, eta ez daitezen izan alkatetzak izan dezakeen borondate aldagarriaren arabera ezarriak. Arautze horrek zehaztasun ariketa handi bat eskatzen du, herritarrek hirigintzan izango duten parte hartzea arautzeko asmoz.

Araudi horrek antolamendu edo barne arauaren izaera du. Parte hartzeko programaren eskakizuna hirigintza antolamenduaren egiturazko aldaketei ezartzen zaie, eta ohikoena da printzipioz udalak duen antolamendu ahala erabat erabiltzearen esparruan egitea ekintza horiek. Beraz, ordenantza hau egiteko, alde batera utz daiteke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, 39/2015 Legea) 133. artikuluan aipatutako kontsulta publikoaren izapidea. Jakina, erregulazio hori aplikatzekoa da, era berean, herritarrek parte hartzeko programa bat aurkeztu behar den hirigintza aldaketetan, sustatzailea udalerria ez bada ere.

Lurralde antolamenduko planak eta hirigintza antolamenduko tresnak onesteko prozedurak arautzen duen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan (aurrerantzean, 46/2020 Dekretua), printzipio orokorren artean, herritarren parte-hartzea eta informazio publikoa zehazten dira, eta, horretarako, gardentasuna eta parte-hartze publiko eta pribatua sustatu behar da, plangintza prozesuari buruzko informazio erabatekoa eta fidagarria epe egokietan emango dela ziurtatuz,

Eta 3. artikuluan, lurralde eta hirigintza plangintzaren izapideetan herritarren parte-hartzea garatzeko oinarrizko gida bat ezartzen du. Honako hemen:

1.- Lurralde edo hirigintza antolamenduko edozein figura formulatu, berrikusi edo aldatzeko hasierako erabakiarekin edo ebazpenarekin batera, parte hartzeko programa bat egin beharko da. Plan horretan, behar adina helburu, estrategia eta mekanismo ezarriko dira, herritarrek eta elkarteek parte hartzeko eskubidea erabili ahal dezaten.

2.- Herritarrek parte hartzeko delako programa oso-osorik argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edo kasuan kasuko lurralde historikoko aldizkarian, administrazio publiko sustatzailearen arabera. Ordenantzak ALHAOn eta iragarkien taula elektronikoan argitaratzea hautatu du.

a) Parte hartzeko gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ezezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gain, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena bilduko da gida horretan.

b) Jendaurreko bilkurak, non azalduko baitira ekimenaren edukia eta espedientea izapidetzean aurkeztutako alternatiba posibleak. Testuaren hitzez hitzeko interpretazioak ordenantzan gutxienez bi saio finkatzera behartzen gaitu.

c) Dibulgazio materiala, legez prestatutako dokumentuekin batera prestatu beharko dena eta, deskargatu ahal izateko, ordenantzak PDF formatuan eskuragarri egotera behartzen duena.

Osagai horiekin burutzen da herritarrek parte hartzeko programak egitea eta izapidetzea arautzen duen ordenantza. Eta entzunaldi publikoaren mekanismoa gehitzen da, 39/2015 Legearen 133. artikulua 2. eta 3. apartatuetan xedatutakoan oinarritua. 39/2015 Legearen 82. artikulua interesdunei entzunaldia emateko epea ezartzen du, hain zuzen, hamar egunetik beherakoa eta hamabost egunetik gorakoa. Entzunaldi hori ez da publikoa izango. 2/2006 Legeak ez du hogeit eguneko gutxienerako eperik ezartzen jendaurreko informazioaren prozesuetan. Aurrekontu eta kontabilitate araudiak baino ez du ezartzen erakusgai egoteko epe laburrakoa, hain zuzen, hamabost eguneko, aurrekontua eta kontu orokorra izapidetzeko. Horrexegatik hautatu da 15 eguneko epea entzunaldi publikorako. Epe horretan, jakina, larunbatak, igandeak eta jaiegunak zenbaketatik kanpo geratzen dira.

Ordenantzak gardentasunaren eta parte-hartzearen beste berme bat ezartzen du, entzunaldiaren epea lehenengo azalpen saioa egin eta hurrengo egunean hasiko baita. Jakina, entzunaldi epeak eta epea zenbatzeko egunek hilabete baino gehiago luzatzen dute HPP eskatzen duten hirigintza ekimenen izapidetzea.

Ordenantzak ez du planteatzen udalaren herri kontsulta egiteko aukera. Hirigintza udal eskumena den arren (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 a artikulua, aurrerantzean 7/85 Legea), plangintza orokorra behin betiko onesteko eskumena Arabako Foru Aldundiari dagokio (2/2006 Legearen 91.1 artikulua).

Ordenantzak aurreikusten du formulazioa, berrikuspenera edo aldaketa hasteko legez eskatzen diren dokumentuak udalaren web atarian edo Arabako Foru Aldundiak udalerrientzat izan behar duen plataforman jarriko direla (ikus 7/1985 Legearen 36. eta 70 ter artikulua).

Ordenantza administrazio elektronikoa edo digitaletik diseinatzen da, sektore publikoak eredu tekniko ekonomiko berri baten eskaerei emandako erantzun berria baita. Eredu horretan, informazioaren teknologia eta komunikazio sareak jarduera ekonomiko, sozial eta kulturalen erdigune nagusi gisa kokatu dira. Hitz batez, ezinbestekoa da prozedurari eta araubide juridikoari buruzko lege berrietara egokitzea bai eta administrazio sinplifikazioaren bidez administrazioaren eta sektore pribatuaren kostuak aritzea helburu duten beste batzuetara moldatzea ere (bereziki gardentasunari buruzkoa, prozedura elektronikoarekin duen konexioa dela-eta); ondorioz, justifikatuta dago ordenantza hau onestea.

I. kapitulua. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Alkatetza da plangintza orokorreko tresna bat formulatzen, berrikusten edo aldatzen hastea onesteko eskumena duen organoa.

2. artikulua

Alkatetza da Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8., 84.4 eta 108. artikuluetan aipatzen den herritarrek parte hartzeko programa onesteko eskumena duen organoa.

3. artikulua

Herritarrek parte hartzeko programa hori Oiongo Udalaren iragarki taula elektronikoa eta ALHAOn argitaratuko da.

4. artikulua

Herritarrek parte hartzeko programak mekanismo hauek izango ditu gutxienez:

1°. Parte hartze gida bat, herritarrek parte hartzeko prozesuaren jarraibideak eta edukiak ez ezik, xehetasunak ere deskribatuko dituena; horretaz gainera, parte hartzeko abiapuntu gisa erabiliko diren edukien laburpena jasoko du.

2°. Gutxienez, jendaurreko bi bilkura. Haietan, ekimenaren edukia eta espedientea izapide-tzeko alternatiba posibleak azalduko dira. Azalpen saioetara, gutxienez, idazketa taldeko kide bat eta formulazioaren, aldaketaren edo berrikuspenaren sustatzailearen ordezkari bat joango dira. Saioak linean edo aurrez aurre egin daitezke. Lineako saioen kopurua ez da ehuneko 50etik gorakoa izango.

3°. Dibulgazio materiala: liburuxkak, eskuorriak, kartelak edo paskinak. Hirigintza tresnak formulatzen, berrikusten edo aldatzen hasteko legez eskatzen diren dokumentuekin batera pres-tatu beharko da material hori, zabaldu eta ulertu ahal izateko. Dibulgazio materiala gutxienez gaztelaniaz eta euskaraz argitaratuko da. Pertsonen eskura egongo da aurrez aurre egiten den lehen azalpen saioan. Dibulgazio material guztia PDF formatuan egongo da eskuragarri, deskar-gatzeko moduan.

4°. Entzunaldi publikoa. Horrek ekarriko du formulazioa, berrikuspena edo aldaketa hasteko legez eskatzen diren dokumentuak udalaren web atarian edo Arabako Foru Aldundiak udale-rrientzat izan behar duen plataforman argitaratzea. Entzunaldiaren helburua da beren burua kal-tetutzat jotzen duten pertsonak alegazioak, kontsultak, oharra, proposamenak, erreklamazioak eta kexak aurkezteko aukera izatea 15 (hamabost) egun balioduneko epean. Entzunaldiaren epea lehenengo azalpen saioa egin ondorengo egunean hasiko da.

5°. Ez da aurreikusten udalaren herri kontsulta egiteko aukera.

6°. Parte-hartzeari buruzko memoria. Haren arau garapena 5. artikuluan ezartzen da.

5. artikulua

4. artikuluko 4. paragrafoan aurreikusitako entzunaldia amaitzean, idazketa taldeak parte-har-tzearen memoria egingo du. Memoria horretan, egindako jarduerak (dibulgazio materialaren ale bakoitzaren kopia erantsiko da), herritarren ekarpenen azterketa eta alegazioei, kontsultei, oharrei, proposamenei, erreklamazioei edo kexei emandako erantzun arrazoitua jasoko dira.

Entzunaldiaren izapidean agertzeak ez du, berez, interesdun izaera ematen. Alegazioak, kon-sultak, oharra, proposamenak, erreklamazioak edo kexak aurkeztu dituzten pertsonen modu orokorrean erantzungo zaie parte-hartzearen memoriaren erantzun arrazoituan. Memoria hori argitaratu egingo da, eta ez da egongo banakako erantzunik jasoteko eskubiderik.

Parte hartzeko programaren memorian, hirigintza tresnaren hasierako onespene eskaerarekin batera aurkeztutako dokumentazioa sartuko da.

6. artikulua

Jendaurreko informazio aldian, hasierako onespeneetik aurrera, gutxienez azalpen saio ireki bat egingo da aldaketaren irismenari eta edukiari buruz, aldaketa osatzen duen dokumenta-ziora sartzeko bitartekoari buruz, ingurumen azterketa estrategikoari buruz, alegazioak egiteko bitartekoei buruz eta haiek aurkezteko lekuei eta epeei buruz. Jendaurreko erakustaldiaren lehenengo 10 (hamar) egun baliodunetan egingo da saio hori.

Xedapen gehigarriak

Lehenengo xedapen gehigarria.

Herritarrek udal erakundearen zerbitzuek duten informazio publikoa eskuratzeko, 19/2013 Legean eta hura garatzeko legerian aurreikusitako prozedura aplikatuko da.

Oro har, eskatzaileak aukeratutako moduan eta formatuan emango da eskatutako informazioa; hala ere, kasu hauetan, eskatutakoez bestelako forma eta formatuan eman ahal izango da informazioa:

1. Informazioa lehendik argitaratuta dagoenean eta erraz eskuratzeko modukoa denean; horrelakoetan, ebazpenean informazioa nola eskuratu adierazi ahal izango da, besterik gabe.
2. «In situ» eskuratzek jatorrizko euskarria galtzea edo hondatzea eragin dezakeenean.
3. Hautatutako formatuan kopia ezin denean, ez dagoelako horretarako tresna teknikorik eskura.
4. Informazioa eskuratzeko hautatutako moduak jabetza intelektualeko eskubideari eragin diezaiokenean.
5. Errazagoa denean, beste modu edo formatu batean ematea sarbidea, edo merkeagoa udal altxorarentzat.

Bigarren xedapen gehigarria.

Toki erakunde honek Arabako Foru Aldundiak administrazio elektronikoaren arloan unean-unean ematen dituen bitartekoak erabili ahal izango ditu. Bitarteko horien artean egongo dira, besteak beste, datuak gordetzea, tresna informatikoak erabiltzea eta SARA sarean sartzeta.

Xedapen iragankor bakarra

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 8., 84.4 eta 108. artikuluetan aipatzen diren herritarrek parte hartzeko programak egitea eta izapidetzea arautzen duen ordenantzari behin betiko onespina eman arte, ordenantzaren hasierako onespenean egunetik aurrera aurkeztutako parte hartzeko programak ordenantzan xedatutakoaren arabera izapidetuko dira.

Xedapen indargabetzailea

Ordenantza hau indarrean jartzen denean, indargabetuta geratuko dira maila bereko edo apalagoko arau guztiak, baldin eta ordenantzaren aginduekin bat ez badatoz, kontraesanean badaude edo bateraezinak badira.

Azken xedapenak

Azken xedapenetako lehenengoa. Alkatetza gaitzea lege aldaketak sartzeko.

2/2016 Legearen lehenengo xedapen gehigarriaren (Tokiko araugintzarako ahala) 2. apartatuan xedatutakoaren arabera, Alkatetzari ahalmena ematen zaio ordenantza honetan nahitaez aplikatu beharreko lege aldaketei soilik dagokien edozein aldaketa txerta dezan, eta hori beren-beregi jasoko da, eta aldaketa horien berri berehala emango zaio udalbatzari berrets ditzan.

Azken xedapenetako bigarrena. Organo eskudunak.

Alkatetzak ditu Estatuko edo Euskal Autonomia Erkidegoko legeriak edo erregelamendu honek udalari esleitzen dizkieten eskumenak, baldin eta udalbatzari edo beste udal organo batzuei berariaz esleitzen ez bazaizkie.

Ordenantza honetan aurreikusi ez diren kasu guztiak organo eskudunen erabakien arabera ebatziko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera.

Azken xedapenetako hirugarrena.

Ordenantza hau indarrean jarriko da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen duen Legean ezarritakoarekin bat etorriz.